

SOPELAKO “ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA”

NONDIK-NORAKOEN TXOSTENA

AURKEZPENA

“Esaera zaharren txapelketa” urtero-urtero egiten da Sopelan (Bizkaia), normalean Aste Santua baino lehen. Aurtengoa, 2006. urtekoa, apirilaren 1ean, larunbata, izango da.

HISTORIA

Aurtengoa 13. edizioa izango da, baina Sopelan egiten den 12.a; izan ere, lehenengoa Algortako Lauaxeta AEK euskaltegian ospatu baitzen.

JATORRIA

Hasiera batean “Esaera zaharren txapelketa” bi euskaltegiko (Sopelako Nikola AEK eta Algortako Lauaxeta AEK) ikasleen arteko lehia adiskidetsua baino ez zen izan. Baina izan zuen arrakasta eta ideari atera zekizkiokeen onurak aintzat hartuta, errepikatzea bururatu zitzaigun. Horrela hasi zen gaur egun ezagutzen dugun txapelketa.

MOTIBAZIOA:

Hainbat dira txapelketaren bidez lortu nahi izaten ditugun helburuak:

Klaseko jarduera osatzea. AEKn euskara klaseak ematen ditugu, baina gure asmoa Euskal herria euskalduntzea bada, klaseak ez dira nahikoa. Ikasleei euskara erabiltzeko aukerak eta guneak eskaini behar zaizkio, eta horretarako euskararen erabilera eta prestigioa sustatu behar dira herrian. Txapelketarekin urtean behin euskara da nagusi herrian, eta euskaltegi zein ikastetxeetako ikasleek eguna euskaraz emateko aukera dute.

Sopelako taberna eta kaleetan euskal giroa (hizkuntza ez ezik, musika, bertsoak, esaerak, euskaldunen arteko bazkaria, kantak, etab. ere) sustatzea.

Euskararen kalitatea babesteko asmoz. Eskola, ikastola eta euskaltegiei esker gure inguruan gero eta euskaldun gehiago badago ere, erdarak daukan indarra oso handia da oraindik. Horren ondorioa da euskaldunok euskaraz ere gero eta erdarakada gehiago erabiltzen dugula, eta euskal esaera zaharren ordeztelazkoak euskaratuta (edo zuzenean erdaraz), erabiltzen ditugula.

Hori guztia, penagarria izateaz gain (euskararen aberastasun eta zuzentasun aldetik), kezkarria ere bada, gero eta euskara txarragoa (eta beraz, ez naturala) entzuten delako nonahi. Hortaz, euskal

esaera jatorrak ezagutzera eman eta, ahal den heinean, erabiltzen ohitzea da gure asmoetako bat.

ESAERAK:

Txapelketarako esaerak leku askotatik atera ohi ditugu, baina gehien bat Resurrección María de Azkueren *Euskal Herriaren jakintza (Euskaltzaindia & Espasa Calpe, 1989)* eta Gotzon Garateren *Atsotitzak* (Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 1998) liburuetatik. “*Haur Folklore*”, “*Bermeoko esakerak*”, “*Urduliz ingeru*” liburuak, hala nola hainbat hedabide (AIZU, ARGIA, UK, DEIA, EGUNKARIA, BERRIA, GARA...) ere izan dira eta dira gure iturriak.

Esaerek, zaharrak izaki, eredu ezin hobe erakusten digute euskararen irakaskuntzan dihardugunoi, eskoletan maiz pairatu behar izaten dugun erdarak kutsaturiko sasi-euskara sendatzeko baliagarria. Horrez gain, Euskal Herri osoan batutakoak dira: horrek abantaila handi bi eskaintzen digu: alde batetik, euskalkien aberastasuna darie, berba zein esamoldeetan, eta bestetik, esaerak euskal lurralde ezberdinetako euskara ezagutzeko tresna aparta dira.

TXAPELKETAREN PROZEDURA:

Txapelketa izanagatik, jai modura planteatu izan dugu beti, euskal kultura era gozagarriz lan daitekeela pentsatzen baitugu.

Txapelketak atal bi dauzka, eta egun osoa betetzen du. Hauexek dira:

Izena eman duten taldeak plazan batu eta bakoitzari bere ibilbidea jakinarazten zaio (lauzpabost ibilbide egoten dira beti, eta beraz 4 edo 5 bat talde joaten dira batera). Trikitilarien musikaz alaiturik, ibilbideak hainbat taberna lotzen ditu, eta taberna bakoitzean gelditu behar da bertsoak entzuteko, epaileak taldeekin batera doazelarik. Txapelketa horrexetan datza hain zuzen ere:

Goizeko bertsook idatzita egoten dira normalean. Bertso bakoitzak esaera zahar baten aipamena egiten du, eta dagokion taldeak, bertsoa entzun ostean, aipatua izan den esaera esan behar du hitzez hitz (buruz ikasita behar dituzte, beraz).

Ibilbide bakoitzean esaera gehien asmatzen duen taldea hurrengo fasera (final erdietara) pasatuko da.

Bigarren fasea Sopelako Ander Deuna ikastolan gauzatzen da, egun horretarako beren-beregi antolaturiko herri bazkaria amaitutakoan. Goizean ez bezala, arratsaldeko atal honetan bat-bateko bertsoak kantatuko dituzten bertsolariak daude. Goizean sailkaturiko taldeek bertsolarien bertsoak entzun eta esaera asmatu behar dute. Bertso kopuru jakin bat bota ostean, puntuaziorik onena dutenak finalera pasatzen dira. Hau lehen aipatu era berean egiten da.

ANTOLAKETA:

Txapelketaren antolaketa Sopelako Nikola AEK euskaltegiak (irakasle, ikasle eta laguntzaileak) egiten du. Egin beharreko lanak hurrengoak izaten dira:

Ibilbideak zehaztu.

Epaileak izendatu.

Esaerak aukeratu.

Esaerak lantzeko teknikak sortu.

Prentsari eta inguruko eskola/euskaltegi/taldeei informazioa pasatu.

Tabernen baimena eta laguntza eskuratu.

Babesleak (diruz laguntzen dutenak) eta laguntzaileak (diru barik beste era batean laguntzen dutenak) erakarri.

Inskripzioez arduratu.

Kartelak prestatu, propaganda gaiak duen garrantzia aintzat harturik.

Bertsolariei (LANKUri) deitu eta berauek kontratatu.

Bazkaria antolatu.

Sariak eta oroigarriak lortu.

Diru sarrerak eta irteerak kudeatu.

Ez pentsa, gero, lan makala denik.

ERANSKINAK:

Aurten erabiliko ditugun esaerak.

Txapelketaren oinarriak.

Aurkezpen gutuna

Edozein zalantza, galdera, proposamen, edo iradokizun izanez gero, jo gugana. Berton topatuko gaituzue:

SOPELAKO AEK
NIKOLA EUSKALTEGIA AEK
E. URRUTIKOETXEA, 12

☎ 94 676 48 76
HIPERVÍNCULO "mailto:nikola@|
aeknet.net" nikola@|aeknet.net

XIII. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA

2006-IV-1

ESAERA ZAHARRAK

ADISKIDE ONEKIN, ORDUAK LABUR
AITONA NEKE, SEMEA GOSE ETA BILOBA ESKE
ALFERRAREN KOLPEA, ZUZENA
ARDOA ONA, NEURRIZ EDAN EZKERO
ARRANTZALEAK EZ DU ERABILTZEN URREZKO AMURIK
ARRAZOIAREKIN EDO GABE, ETXEKOEN ALDE
ASTELEHENETAN IGANDE-ARROPA DARABILENAK, IGANDETAN ASTELEHENETAKOA
ERABILI BEHAR
AZKAR ETA ONDO, USOAK HEGAN
BAKARDADEA, OHITURA TXAR GUZIEN ITURRIA
BAKEA EZ DA DIRUZ ERODIA
BATASUNAK INDARRA DAKAR
BEGIAK NORAINO, NAHIA HARAINO
BEKAIZTI ETA HASARRE: BIZIAREN LABURTZAILE
BELDURRA ITSU
BERE BURUA EZAGUTZEA DA JAKITEA.
BESTE LANIK EZ ZUENAK AHUNTZEI BURUA IKUZI
BIHOTZ ERORIA HITZ ON BATEK ALTXATZEN
BIZI LUZEENA EZ DA HOBERENA
BURURIK NEKATZEN EZ DUENAK HANKAK NEKATU BEHAR
BUZTINA, HEZE DENO MOLDA ZAZU
DAKIZUNAZ GUTXI MINTZA ZAITEZ, EZ DAKIZUNAZ BATERE
DANTZATU NAHI EZ DANA, EZ DOALA DANTZARA
DAUKANARI GALTZEN DAKO
DEN NEGU, NOLA DEN UDA, BETI DA ARROPA LAGUN ONA
DERIO ETA ERANDIO, SONDIKA ETA LOIU, AHALEGINA EGIN ARREN, ARTO GUTXI KOIU
DEUSETAKO ON EZ DENIK EZ DA.
EDAN ETA GERO EGIK
EGIAZKO NAUSIA DENEN ZERBITZUKO
EGINARENDAKO ERREMEDIORIK EZ
ENARAK GOIAN HARA ETA HONA, LUZARO EGURALDI ONA
ERAUNTSIA PASATU ETA GUARDASOLA ATERA
ERO GUZTIAK, SUERTOSO
ERREGALO TTIKIA, ESKER TTIKIA
ERREGE TONTUA ASTO KOROATUA
ESAERA ZAHARRAK, GEZURRIK EZ
ESPERANTZA, GOSARI ONA ETA AFARI TXARRA
ETXEAN GIRO TXARRA, TABERNARA SENARRA
EZ DAITEKE EGURRIK EGIN BASORATU GABE
EZ JAN, EZ LAN
EZINA, EKINEZ EGINA

EZTAUZ ZORO GUZTIEK BERMEON
GAITZ ASKO, ONERAKO
GAUA, GOGAPENEN AMA
“GERO” DINOANAK “BEGO” DINO
GERRA OSTIAN, GOSIA
GIZONAK ITSASOARI: EZKON HADI, MANTSOTUKO HAIZ BAI!
GURASOEN HAURKERIEK EZ DUTE HAURRA ONTZEN
HAMABI OFIZIO, HAMAIRU MISERIA
HARTZEKO PRONTO EMATEKO TONTO
HAURRAK HAZI, NEKEAK HASI
HERRIK BERE LEGE, ETXEK BERE AZTURA
ILE LUZEAK ADIMENA LUZATZEN EZ, LABURRAK LABURTZEN EZ
IRABAZI DUENA ARMONIN, GALDU DUENA AGONIN.
ITSASO GUZTIAK IGARO TA BAZTERREAN ITO
JAKINTSU GITXI ABERATS
KANTARI TXARRA BETI KANTETAN DAGO
KATUA KANPOAN, ARRATOIAK PESTA
KAZETA, GUZURREZ BETETA
KOITADUEN OINEAN BETI ARANTZA
LAN MANATUAK GEHIAGO AKITZEN
LASTO SU, LASTER SU
LEHENENGOAN BARKA, BIGARRENEAN URKA
LIBERTATEA EZ DA EMAITEN, BAINAN HARTZEN
LOTSA EZ DA GALTZEN DEN TOKIAN AURKITZEN
LUNES I MARTES, EZIN EGON ARTEZ
MAITASUNA ETA KEA EZTAGO DISIMULATZERIKAN
MESEDEA MESEDE TRUK OHI DA
MIRESTEN EZ DAKIENAK ADIMENDU GUTI
MUTURREZ MAITE, ERRAPEZ GAITZETS
NAHI BADEK/DEN BIZI MIN GABE, EZ JAN GOSE GABE
NEGUA DENEAN IGUZKITSU, ONDOKO UDA EURITSU
NOBIOA? HOBE URTE GUZTIRAKO OLIOA
NOLA BIZI, HALA HIL
NOLAKO ALKATEA, HALAKO JUSTIZIA
NORBERAK NORBERAN BURUE EZTAU ALABE BIER
OILO IBILTARI AZERIEN JANARI
ONTZI TXIKIA, AZKER BETE
ORAIN ORAINGO ETA GERO GEROKO
ORHIKO XORIAK ORHIN LAKETZEN
OTSOAK JAN ALA ARTZAINAK JAN, BILDOTSARENTZAT BERDINTSU
POTE HUTSAK HOTS HANDIA
SASIAN ZER DAGON JAKIN BARIK, TIRORIK EZ
SEKULAN EZ BARKA ZURE BURUARI, BESTEERI BETI
SO EGILEA DANTZARI EDER
SORLEKIAK BAINO, OHITURAK INDAR HANDIAGO
SOSA EZ DA DENA BIZIAN
TENTAZIÑOAK ERAKUSTEN NOR NOR DAN
TITIA ETA ALUA, HORIEN MENDE MUNDUA
TTIPITIK HANDIRA, GUTITIK HAINITZERA, ETXETIK GALERETARA, BIZITIK HILTZERA;
HORIEN GUZIEN ARTEAN URHATS BAT BAIZIK EZ DA
TXAPEL DOTOREA ETA BURU HUTSA
URDULIZTARRA EZTA TXARRA
URGULUTSUAK NAHIO DU NUNBAIT GALDU BIDEA NORBAITI GALDEGIN BAINO
XINGARRA UKAN ETA GARIZUMA IZAN

ZAPATA ZURIAK PAPEREZ, URA DENEAN BAT ERE EZ
ZENBAT ATE HAINBAT MARATILA
ZOR DIN MAITATU IZATEAK ORDAINETAN MAITATZE
ZORIONA, INOIZ EZ OSORIK EZ IRAUNKORRIK
ZOZOAK BELEARI IPURBELTZ
ZULOA BAINO ZARPA HOBEA
ZURIAN BELTZA JARRI EZKERO, HAN GELDITZEN DA

XIII. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA (Apirilaren 1ean)

OINARRIAK

Txapelketa taldeka egiten da (2-4 kide, 16 urtetik gorakoak).

Izena emateko azken eguna **MARTXOAREN 27a** izango da. TALDEAREN IZENA, eta TELEFONOA edo HELBIDE ELEKTRONIKOA eman beharko dira.

Taldeak **10 €** ordaindu beharko du **izena ematean**, inskripzio gisa.

Izenaz gin, taldeek zenbaki bana izango dute: 1. taldea 2. taldea, etab.

Txapelketak BI SAIO ditu: eguerdian KANPORAKETAK eta arratsaldean FINALAK.

Zerrendako 100 esaera zaharretatik bat **ez da** benetakoa. Esaera **"berria"** identifikatzen duen lehenengo taldeak bere ibilbidea hautatu ahal izango du. **Hortik aurrera esaera hori besteak bezalaxe agertu ahal izango da.**

Txapelketan, bertsoei dagozkien esaerak zerrendan ofizialean agertzen den modu **BEREAN** (hitzez hitz) esan beharko dira ontzat emateko. Txapelketa egunean ezin izango da zerrenda eskuan izan.

Esaera asmatzeko bertso bat kantatuko zaio dagokion taldeari, bertsoan esaera asmatzeko hainbat zantzu agertuko delarik. Bertsoa, gehienez, birritan kantatuko da eta hortik aurrera taldeak minutu bat izango du erantzuna emateko, **TALDEKO BOZERAMALEAREN** bidez (beti pertsona bera). Erantzun bakarra onartuko da taldeko.

Talde bakoitzak, gutxienez, **bertso bi** entzungo ditu (hau da, esaera bi asmatu ahal izango ditu). Bere txandan asmatzen duen **esaera bakoitzeko**, taldeak **puntu BI** eskuratuko ditu.

Esaera **asmatu ezean**, beste taldeek **erreboterako aukera** izango dute. **Bertsoa berriro kantatuko**, eta taldeen ordena errespetatuko da. **Errebotean** asmatzen duen taldeak **puntu BAT** irabaziko du.

Goizeko ibilbide bakoitzean puntu gehien batzen duen taldea **FINALERA** joango da; arratsaldean puntu gehien lortzen duena IRABAZLEA izango da.

Kanporaketetan zein finalean **HAINBANA** gertatuz gero, bertso bana kantatuko zaie taldeei, batek besteak baino puntu gehiago erdietsi arte.

SOPELAKO AEK-k honako **oinarriak aldatzeko eskubidea** du, antolaketa arazorik izanez gero.

Epaimahaia izango da txapelketa gidatzeko; SOPELAKO AEK-k erabakiko du zenbatek eta nortzuek osatuko duten.

Txapelketan parte hartzeak oinarriok **onartzea** dakar ezinbestean. Hala ere, beti izango da **kexatzeko eskubidea**.

XIII. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA

(Sopelan, 2006ko apirilaren 1ean)

Kaixo:

Eskutitz honen bidez, Sopelako AEK-k ESAERA ZAHARREN TXAPELKETAren 13. edizioa aurkeztu gura dizue.

Txapelketa horren bitartez esaera zaharrak ezagutaraztea eta, erabilaraztea bilatzen dugu, ondo pasatzea eta gozatzeaz gain.

Hitzordua apirilaren 1ean, larunbata, duzue Sopelan. Txapelketa hiru zati dauzka: eguerdian herrian zehar lehenengo fasea (kanporaketak), ostean ANDER DEUNA ikastolako jantokian herri-bazkaria nahi duten guztientzat (15€), eta bazkalostean final handia.

Txapelketa honelaxe egiten da: izena ematean talde parte-hartzaileei esaeren zerrenda ematen zaie (100 atsotitz, haietako bat berria) eskura edo posta elektronikoz. Euren lana esaerok ikastea izango da, txapelketa egunean ezin baita zerrenda erabili.

Lehia hasi aurretik, esaera berria zein den galdetzen da. Inork asmatuz gero, abantaila txiki bat eskuratzen du, lehen faseari begira.

Kanporaketetan bertso idatziak (ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLAK aurretik prestatuak) kantatzen zaizkie taldeei. Bertso bakoitzak esaera zehatz bat du oinarri eta taldeak esaera hori zein den esan beharko du, hitzez hitz.

Finalean berdin, alde bakarra dagoela: bertsoak bat-batekoak izaten dira. Horretarako, aurten OIHANE PEREA eta ION MAIA izango dira gurekin.

Gutun honekin batera, lehiaketaren oinarriak eta aurtengo 100 esaerak doazkizue. Mesedez, ahalegindu ekimenaren berria zabaltzen.

Besterik ez. Zuen zain izango gara.

Ezelako zalantza, galdera edo iruzkinik izanez gero, bertan topatuko gaituzue:

NIKOLA EUSKALTEGIA AEK
E. URRUTIKOETXEA, 12
48600 SOPELA (**BIZKAIA**)
HIPERVÍNCULO "mailto:nikola@aeknet.net"
nikola@aeknet.net / HIPERVÍNCULO <mailto:aitor@aeknet.net>
aitor@aeknet.net
94 421 23 29 (goizez) / 94 676 48 76 (arratsaldez)

Oharra: izena emateko epea, bai txapelketarako bai bazkarirako,
MARTXOAREN 27an, astelehena, amaituko da.

ONTZI TXIKIA.....

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

.... AZKAR BETE

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

SOPELAKO AEK - NIKOLA EUSKALTEGIA
ENRIKE URRUTIKOETXEA 12, 48600 SOPELA
(BIZKAIA)

94-6764876 edo **HIPERVÍNCULO "mailto:nikola@eknet.net"**
nikola@eknet.net

.... AZKAR BETE

ONTZI TXIKIA.....

ONTZI TXIKIA.....

.... **AZKAR BETE.**